

Lehen Gurenda Etxia, gaur Batzokia

Uriaren 22an, Ermuko Batzokiaren 25. urteurrena ospatu zen eta hiru ermuar omendu zituzten. Joseba Idigoras, Maximo Araiztegi eta Santos Urreta. Historian arakatzuz, Batzokiak Ermuan izan duen funtzioa ezagutzeko aukera eskaini digu Joseba Idigoras-ek berak.

Batzokia Ermuan lehenengo, Ostatuan (gaur egun BBK dagoen lekuan) jarri zen 1932an. Han taberna zena jarri zen baina horrezaz gain, saloi bat zegoen, dantzak eta antzerkiak egiteko. Ostatuan egon zen 1935era arte.

Gurenda Etxia

1933an gaur egungo Batzokiaren eraikina jasotzen hasi ziren. 1935eko ekainean inauguratu zen, orduan "Gurenda Etxia" (Casa de la victoria) bezala ezagutzen zena. Eraikina hainbat ermuarren diruekin jaso zen, Josebak ondo dauka buruan: "Akziño bako txak duro bat balio eban". 1935ean Pedratxanequak hartu zuten Gurenda Etxearen kargua. "Gure aitxa eta ama, kontserjiak zian. Amak han eitzen eban biharra egun guztixan, Mirenek, nere arrebiak lagundu eta bestiok frontoian kargua eukitzen genduan, garbitxu eta zaindu. Orduan be, soziua ez zanari, frontoia erabiltzian txakur haundi bat kobratzen jakon. Hara jendia bazkaltzera eta afaltzera etortzen zan. Behian bodega bat euan eta bertan, gaseosak eta limonadak eitzen

zian. Gurenda Etxian Jeltzaliak erabiltzen eben gela bat euan eta beste guztixa, herrian eitzen zian gauzendako erabiltzen zan", dino Josebak.

Gerratean ejerzitoaren esku

1937an Pedratxanequak alde egin behar izan zuten. Gerratearekin batera, apirilaren 26an, tropak sartu ziren Ermuan eta han utzi zituzten Gurenda Etxeko gauza guztiak: arropa, sukaldeko tresneria, ohe eta abarrekoak. Tristura igartzen zaio Josebari pasarte hau gogora ekartzen duenean, "Dan-danak, ostu zitxuen. Gerra ostian ezer barik geratu ginan, gainera "Botin de guerra" moduan deklaratu eben eta ejerzituaren eskura pasatu zan. Orduan guardia zibilak sartu zian eta ixa 1970 urterarte egon zian, kuartelera alde ein eben arte eta gu barriro sartu giñan". Berriz ere, bazkideen artean dirua jarri eta berrizatu egin zen eraikina. Bigarren, 1979an inauguratu zen. Orduan, urte betean kudrilla ezberdinek Batzokiaren kargua izaten zuten, "bete-beteta egoten zan, normalian afarixak emoten genduaz, baiña ikusi genduan ezin zala hola jarraitxu eta batek hartu eban kargua", gogora dakar Josebak.

Gaur egun, frontoian nahi duenak pelotan egin dezake, horrez gain, dantzak eta gimnasia ikastaroak ere bertan ematen dira. Horrela mantenerako beste ateratzen dute.



Urriko omenaldia izan zela eta, Eibarko Roberto Larreategik honako gutuna bidali zuen Drogeteniturrira:

Zorionak

Jakin banekixan, aspaldi nauzixeri entzunda, Ermukua zala Bizkaiko batzokirik politena, baiña ez neban esango halako illuntzi ederrrik pasauko nebanik Ermuan. Hirurogeita hamar urte bete dittu eta oindiok zutunik bere lekuan, gerria, Franco, Falangia eta eragozpen guztien gaiñetik. Hirugarren inauguraziñua zala ta, "hau derrigor haundia izan bihar jok pentsaturik" hor juañ giñan Eibarko taldetxo bat bertan antolau ziran ekintzetan parte har-

tzeko asmuakin. Betiko moduan, ikurriñari agurra, Josu Jon Imazen hitzaldi politikua entzun eta homenajia. Hiru ermuar ziran oinguan, lelengo inaugurau zanian bertan egondakuak; ha zan zirrara Arkatiz taldiak eskañi zetzen aurrezkuan Joseba, Maximo eta Santosi. Zorionak eureri eta txistularixari. Dena juañ zan ondo baiña jaialdi osteko afarixa eta afalosteko berriketa eta kantualdixa, ahaztu ezin izaten diran horretakua. Benetan! Igartzen jakon bai zeinek antolauta egon zan. ERMUARRAK! Zorionak eta eskerrikasko. Berriro be ingozue beste inauguraziño bat, sekula halakorik!

Alazne Aieslaran



URRETA

burdindenda

✱ Etxea

✱ Tresneria

✱ Brikolaia


✱ Rielak

✱ Giltzak

✱ Zerrailgintza

✱ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



ESTETIKA-EDERGINTZA

Aldapa 1

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

943 17 60 52